

# GIZONENTZAKO BERTSO ESKOLA FEMINISTA 2020-2021 ikasturtea

Izena emateko epea: 2020ko irailaren 23tik urriaren 4ra arte

Gizonezko bertsolariak eta gai-jartzaileak lanketa feminista egiteko bertso eskola izango da, nabari baita gizonezkoetan badela gogo, jarrera, interesa eta jakin-mina begirada irekitzeko. Oinarri teorikoa eskainiko zaie taldekideei, eta talde dinamikak nahiz adituen edo arituen ekarpenak izango dira saioz saio. Gogoetarako eta esperientziak konpartitzeko espazioa eskaini nahi da, taldekideekiko konfiantza eta zaintza bermatuz. Bertsoan egiteko espazio bat ere izan nahi du Gizonentzako Bertso Eskola Feministak.

Bat-batean maila ezberdina duten bertsolariak eta gai-jartzailetzan ari direnek eman dezakete izena. Ikasturte osoko konpromisoa eskatuko du, bai asistentzian eta baita parte hartzean ere.

## Ezaugarriak

- ☉ Maiztasuna: hilean behin larunbata goizez (10:00etatik 14:00etara). Ikasturtea 2020ko urrian hasi eta 2021eko ekainean bukatuko da.
- ☉ Amasa-Villabonako Subijana etxean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitzan (Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).
- ☉ Saiotako gidari lanetan: Arkaitz Goikoetxea Arriola eta Iker Iriarte Iribar.
- ☉ Partaide kopurua: gutxienez 8 eta gehienez 20.

## Oinarriak

- Konpromisoa:** Ikasturte osoan zehar klaseetara etortzea eta dinamikan parte hartzea eskatuko zaie bertso-eskolan izena eman duten partaideei.
- Esperimentazioa** da bertso-eskola honen oinarria. Metodologia ere egokitzen joango gara taldearen bilakaeraren arabera.
- Aniztasuna:** ikuspegien arteko aniztasuna eta errespetua oinarri izango da, epairik gabeko begirada landuz. Zaintza erdigunean jarriko da.

## Egutegia

### 2020

Urriak 10  
Azaroak 14  
Abenduak 12

### 2021

Urtarrilak 9  
Otsailak 13  
Martxoak 13  
Apirilak 10  
Maiatzak 8  
Ekainak 12

**Izen ematea:**

- Bertsozale Elkarteko [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian, formularioa betez.
- Bertan, datu hauek eskatuko zaizkizu:
  - o Zure izen-abizenak, telefonoa eta e-maila.
  - o Matrikula kobratzeko zure kontu korrontearen 20 zenbakiak.
  - o Matrikula zenbat kuotatan ordaindu nahi duzun.
  - o Datu babeserako lege oharra onartzea.
  - o Oharrak uzteko aukera duzu bertan.
- Izena emateko epea:
  - o 2020ko irailaren 23an hasiko da, 9:00etan, eta urriaren 4an itxiko da.
  - o Taldea osatzeko izen-emate ordena hartuko da kontutan. 20 lagunentzako tokia dago.
- Taldearen osaketaren berri urriaren 5ean emango da eta matrikula kobratuko da. Matrikula 150€ da.
- Izena emateak bertso-eskolaren oinarriak onartzen direla adierazten du.